

10. KOSTUEN EGITURA

Hauek dira gure produktuaren kostuak:

Lehenik eta behin, kargagailuak fabrikatu behar direnez, kostua aldakorra izango da erosten den kopuruaren arabera. Gauzak horrela, eskariari eta eskaintzari buruzko legea erabiliko dugu eta, esan bezala, prezioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gutxiago erosiko dute kontsumitzaileek; beraz, ezinbestekoa izango da prezio egokia ezartzea.

Gero, zamagailu horiek hainbat dendatan salduko direnez, bertako langileei ere zerbait ordaindu behar diegu, gure bezeroei saltzen lagundu digutelako eta gure bazkide izaten jarraitu dezaten. Beraz, kostu finkoa izango da hilero gure irabazien zati bat eman behar diegulako.

KOSTUA LEHENENGO HILABETEAN:

ELEMENTUAK	KOSTUA	KANTITATE	TOTALA
Kargagailuen ekoizpena	30 €	x165	4950 €
Salmenta lekuak	200 €	x5	1000 €
Lantegien alokairua	2000 €	x2	4000 €
Lantegien argia	120 €	x2	240 €
Langileen soldatak	1100 €	x30	33000 €

GUZTIRA: 43.190€

